

noaua

**Euskara ikasi
berme guztiakin**

**Hezkuntza sektorea,
grebaren atarian**

**Ikastaro ugari
iragarri dira
ikasturte hasierarako**



**Usurbilgo Udalak
bonu gehiago plazaratu ditu,
saltoki gehiagotan erosteko aukera eskainiz**



NOAOA BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

943 37 36 13

Ordutegia:
09:30-13:30

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaoa.eus



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

INGELES klaseak haur eta helduentzat

Maila guztiak

High level "use your English"

Elkarrizketa klaseak (helduak)

Matrikulatzea **dohainik**

Jatorriko irakasleak

Azterketen prestakuntza,

**First
Advanced
Proficiency**


tobyngana
english SCHOOL

Gozatu eta ikasi!

Eman izena lehen bait lehen, Irailean hasten gara!

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

Albisteak iruditan

Hondakinak Aranerreko bidean

Abuztuaren 30ean, igande goizez herritar batek atera eta NOAUA!ra helarazitako argazkia duzue ondokoa. Aranerreko bidean jasotakoa. Aulki bat bide ertzean, hondakinez josia. “Noiz ikasiko dugu natura zaindu behar dugula? Usurbil garbi baten alde!”, agertu da herritar hau.

Oria ertzeko udalerriak, Gipuzkoako uholde-arrisku handienetarikoen artean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Naturklimak “Gipuzkoako Klima Aldaketaren Eraginari eta Zaurgarritasunari” buruz kaleratu duten “0 txostenak” etorkizunera begira ohartarazi duenez, “Gipuzkoako udalerri gehienek uholde-arriskua izango dute. Oria eta Urumea ibaien arroetako udalerriek dute arrisku handiena”.

Ikerlanak “klima-alduketak Gipuzkoako ingurune naturalean eta lurraldeko 10 sektore sozioekonomikotan dituen eraginak aztertzen ditu”. Urtero eguneratu asmo duten txosten honen xedea, “etorkizunean egokitze-neurriak hartzea eta, hartara, lurraldearen zaur-



“Noiz ikasiko dugu natura zaindu behar dugula? Usurbil garbi baten alde!”, dio argazkia NOAUA!ra bidali duen herritarrak.

garritasuna murriztea” da, eskualde eta tokiko plangintzen bidez.

Klima aldaketaren ondorioei aurre egiteko Gipuzkoako ahulezia aitortuta, oinarritzko eta ezinbesteko tresnatzat jo-

dute urterokoa izatea nahi duten txosten hau, “emisiorik gabeko ekonomia berde bat sustatzeko eta lurraldearen erresiliencia handitzeko arintze- eta egokitzeko politikak gidatzeko”.

Laburrean

Kzgunerako hitzordua eskatu

Uztailean zabaldu zuten. Bertaratu aurretik hitzordua eskatu 945 016 100 telefono zenbakian. Dei horretan jakinaraziko dira KzGuneak erabilerarako irizpideen berri.

Martxotik hona, 31 kasu Usurbilen

Osasun Saila herriz herrizko kasuei buruzko zifrak plazaratzen hasi zenetik 31 covid19 kasu detektatu dira iraila hasierara arte Usurbilen. Haietatik 14 abuztuaren zehar. Hildakorik ez da izan.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaUA

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaUA.eu ||| www.noaUA.eu
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaUA.eu

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaUA.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ugaitz Agirre Zapirain

Hala deitzen zuten denek metropolian: il dottore.

Goitik behera trapu beltzen pean ezkututzen zen, auskalo oihalen tolesturek zer ezkututzen zuten. Kapelu handi baten babesean, ur jauzi gisa erortzen ziren euri tantak ekaitz egunetan. Moko luzedun maskarak aurpegi osoa estaltzen zion, putrea iradokiz, sarraskia non, bera han. Begien parean zituen bi kristal zatiek bere begirada ezkututzen zuten. Metropolianitsu geratu zenaren zurrumurrua zebilen aspaldidanik. Infernua ikusi eta gero, hobe zela ezer ez ikustea. Absurdoa zen, ordea. Nola tratatuko zituen pazienteak ikusi gabe?

Hilabeteak pasa ziren izurriak lehen urratsak eman zituenetik hemen metropolian. Jendea nazkatuta zegoen jada, nazkatuta agintarien inkompetentziaz, adituen ahoberokeriaz, bizilagunen enpatia ezaz... Eguneko segundo bakoitza iazkoarekin alderatzen zuten, atzoko munduaren loria egunak memoriaren hemerrotekan bilatzen. Kazetariak ipuin kontalariak ziruditen, jugla-reak, legenda erromantikoe-tan kokatzen ziren istorioak idazten zituzten egunero, medikuek opiaseo errezeta globala egin izan balute bezala hiritar ororentzat.

Il dottore



“Hilabeteak pasa ziren izurriak lehen urratsak eman zituenetik hemen, metropolian”.

IL DOTTORE

“Goitik behera trapu beltzen pean ezkututzen zen, auskalo oihalen tolesturek zer ezkututzen zuten”

Eta il dottorek ez zuen aski larruzko eskularruz estaliak zituen hatzak lurperatzera bidali zituen gorpuak zenbatzeko.

Ia mendea ezagutu zuen agurearen etxera joan zen. Bere azkenetan zegoen. Il dottore sartu zenean, heriotza sartu zelakoan izutu zen, ohetik jauzi egin eta bere aurrean belaunikatuta erregutzen zion oraindik ez zezan eraman.

“Ez larritu jauna, il dottore naiz”, eta sekulako zama gaineretik kendu izan balu bezala sartu zen ohean berriz ere. Barne-organoak zeharo hondatuta

zituen gaixoak, eta mina arindu ziezaiokeen edozer onartzen zuten. Baita gezurra ere. “Entzun dut zuek sortutakoa dela zomorro hau zaharrekin amaitzeko”, bota zion il dottorek botikarekin nahastutako purea ahora eramaten ziolarik.

Hurrengo pazientearengana zihoala, kartel batean irakurri ahal izan zuen manifestazio koloretsu eta alai antolatuta zutela gertatzen ari zena ukatzen zuten kolektiboek. Hizki larritan irakur zitekeen: Kolaborazionistatik ez! Izurria handi-mandiek asmatu baitzuten norbanakoen gaineko kontrol soziala areagotzeko, eta haiek behartzen zituzten jarrerak onartzeak gaizkiaren konplize bihurtzea zekarren.

Ezin izan zion manifestazio hartara hurbiltzeko tentazioari eutsi.

Azken pazienteak hilerrira bidaltzearen frustrazioak eragin-

da azaldu zen manifestazio koloretsu eta alai. Bertan dena zen kantua, dena zen dantza, poesia eta emozioen orgia. Lubakietan ikusitako guztia mamu gisa itzuli zitzaion bat-batean, auhen garaiak eta isiltasun izoztuak.

Kolpean sutu zen. Ahoan ausaz elkartuak ziruditen hitzak zituen hizlaria mututu eta egoeraren larritasunaz ohar zitezen eskatu zien bertaratutako ukatzaileei, berak ikusi behar zuena ez zela inolako engainua. “Kolaborazionista!”, garrasi egin zuen batek. Segituan oldartu ziren gainerako denak, eta bitan pentsatu gabe eraman zuten herri epaitegiaren aurrera. “Eskuak inuzenteen odolez zikinduak ditu!” oihukatzen zuten batek. “Gurekin akabatu nahi duen horietako bat da!”, besteak. “Sutan erre dadila deabruarekin batera!”, hirugarrenak. Il dottorek ezin zuen sinetsi parean zeukana.

Oldarraldiak harrapatuta, bere trapu beltzetatik atera zuten. Han ez zegoen hezur zaku bat besterik, handitasun oro oihalen tolesturekin batera desagertu izan balitz bezala. Oldartuek plazaren erdira eraman zuten halere, zurtoinera lotu eta su gaizkiaren konplize izatea egotzita: il dottoreren garrasiak satisfazioz entzuten zituen entzuleak.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Asteotan jarri nahi dute erraustegia guztiz martxan

Hilabete honetan bertan guztiz martxan jarri nahi du Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak (GHK) Zubietako erraustegia. Gogoan izan, “ofizialki” probaldi fasean dute, iazko azaroaz geroztik. Kea dariola ikusi dugu noiznahiz erraustegia, baita azken asteotan ere. Ondoko argazkia abuztuaren 30ekoa duzue.

Sinadura bilketa

Usurbilgo Udalarari sortzen ditugun hondakinekin erraustegia elikatu ez eta gure diruarekin ordaintzea eragozteko eskatzeko sinadura bilketa abiatuko du herritar talde batek udazken honetan bertan. “Erronkak mezezi du, gure herriaren etorkizuna dago jokoan”, adierazi zuten, “Ez hondakinik, ez dirurik erraustegiarentzat” izenburupean oporraldi aurreko azken NOAUA!n argitaraturiko idatzian.

GHK-ren isuna erraustegia kudeatzen duen enpresari

45.000 euroko isuna jarri dio Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak (GHK) Zubietako erraustegia kudeatzen ari den Ekondakin enpresari, maiatza hasieran Arkaitzerrekan izan zen isuriagatik. Erraustegitik izandako isuri hark ehunka



Kea dariola ikusi dugu noiznahi erraustegia, baita azken asteotan ere.

HERRITAR TALDE BATEK

“Ez hondakinik, ez dirurik erraustegiarentzat” sinadura bilketa abiaraziko dute laster

arrain hil zituen.

Hasieran, Zubietako bizilagunek ezagutzera emandako istripuarekin erraustegiak zerikusirik izan zuenik ukatu zuen GHK-k. Gerora, erantzukizuna erraustegia kudeatzen duen enpresari egotzi zion.

3 arau hauste administrati- bo (bi arin eta larri bat) egin zituela adierazi zuen. Eta aipatu 45.000 euroko isuna jartzea erabaki zuen Kontsorzioak asanblada bidez. 25.000 euroko isuna amoniako isuriaren berri ez emateagatik. Arau haus-

te larrizat jotzen du GHK-k. 10.000 euroko isuna kubetaren diseinuaren aldaketaren berri ez emateagatik; beste 10.000 euroko isuna pH metroa matxur- ratuta zegoela ez egiaztatzeagatik. Azken bi hauek arau hauste arintzat jotzen ditu Kontsorzioak.

Bide judiziala

Horrez gain, gogoan izan, Ane- rreka Ingurumen Elkarateak, Zubietako Lantzenek eta Eguzkik salaketa aurkeztu zuten Gi- puzkoako Ingurumen Fiskal- tzan. Fiskaltzak Arkaitzerre- kaka isurketa “ingurumenaren aurkako ustezko delitua” egon dela iritzita ikerketa-diligen- tziak epaitegira helarazi ditu, deliturik egon den edo ez era- baki dezan.

Gure Elkartearen tabernaren zerbitzua kudeatzeko esleipena

Santueneko Gure Elkarteko tabernaren kudeaketa esleiz- tzerako Usubilgo Udala. Urtebeterako kontratua es- leituko du, beste hiru urtez luzagarria. Irailaren 11ko arratsaldeko 14:30ak arte zabalik dute interesdunek, proposamenak aurkezteko epea.

Udajolasen kuota erdiaren itzulera

Zerbitzua eskaini ez zen bi astei zegoen kuota (%50a) itzultzea erabaki zen, Udalak hilabeteotan eskaini izan ezin dituen beste hainbat zerbitzu- rekin egin duen moduan.

Furgobaratza bueltan da

Irailaren 17an 18:00-19:30 artean Usubilgo Baratzeko Parkera itzuliko da Furgoba- ratza. Gogoan izan, “Furgo- baratzaren bidez, Kutxa Eko- guneak lursailetarako aholku teknikoak eskuratzeko eta landare eta plantel ekologi- koa erosteko aukera eskaini- tzen du”.

Informazio gehiagorako:

ekogunea.eus
ekogunea@ekogunea.eus

Ika-mika

Ugartondon balkoiak nahi ditugu!

Asko eta asko gara Ugartondon babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) edo etxebizitza tasatuak erosi ditugunok. Etxebizitzak gutxi- naka gora egiten ari zirela ikus- ten ari ginenean Covid-19ak egoera erabat aldatu zuen: etxetik atera gabe egon gara bi hilabetez, eta orduan, beste

askok bezala, balkoia izatearen garrantziaz jabetu gara.

Ildo beretik, duela hilabete aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak Bizigarritasunari buruzko Dekretua, eta bertan ere zehazten da etxebizitza berriek gutxi- nez 4 metro karratuko balkoia izan beharko dutela. Horrek bultzatu gaitu, hain zuzen,

erosi berri dugun etxebizitza- tan –babes ofizialekoetan zein tasatueta– balkoia jartzeko eskaera egitera.

Etxebizitza hauek eskuratu ditugunon artean dagoeneko egin dugu taldetxo bat, bai- na ez dugu lortu denongana iristea. Hortaz, Ugartondon halako etxebizitzarik eskuratu

duzueni deia luzatu nahi di- zuegu taldera batu zaitezten: ahalik eta gehien elkartzea da helburua, denon iritzia jaso eta behar den lekuan idatzi bat aurkezteko. Interesa baduzu, idatzi: ugartondobalkoiak@gmail.com

Herritar talde bat.

Ordenantza fiskaletako hobarien araudia egokitu dute, enplegua sustatzen duten proiektuak laguntzeko

Bizi dugun osasun krisialdia ekonomikoa eta soziala ere baden heinean, eta datorkigun garai zailari begira, enplegua sustatzen duten proiektuei zuzenduriko hobariak indartzeko hautua egin du Udalak. Horretarako hain zuzen, hobariak arautzen dituen ordenantza fiskalen 11. artikulua egokitzea onartu zuten uztailaren 23ko udalbatzarrean.

Etorkizunean Kalezarren kokatuko den eta jada eraikitzen hasiak diren adinekoen auzune proiektuari Matia Fundazioak eginiko %50eko hobaria aplikatzeko eskaerari baiezkoa eman zion udalbatzak maiatza amaierako osoko bilkuran. Ordenantza fiskaletan jasoa duten moduan, interes bereziko edo udal onurarako proiektutzat jotzen du Usurbilgo Udalak aipatu egitasmoa. Ez da ordea proiektu honi aplikatuko zaion hobari bakarra izango; Udalak indarrean dituen ordenantza fiskalen baitan, udalbatzak onartu beharrik izan gabe, automatikoki irisgarritasunagatik eta energia efizientziagatik ere %90-95 arteko hobariak aplikatuko dizkiote proiektu honi. Orain bai-



Hobariak arautzen dituen ordenantza fiskalen 11. artikulua egokitzea onartu zuten uztailaren 23ko udalbatzarrean.

NEURRI ARINGARRIAK

“Matia Fundazioak eginiko %50eko hobaria aplikatzeko eskaerari baiezkoa eman zion udalbatzak maiatza amaierako bilkuran”

ta Matiak eskaturiko %50ekoa; hau bai udalbatzarrak onartu beharra zuen eta hala egin zuten duela bi hilabete.

“Hurrengo urteetan enpresa garrantzitsuak datoz herrira”

Ildo honetatik, hobarien gaiari

dagokionean, hobetzeko tartetik ba ote zen aztertzen segitzeko bidea jorratzea erabaki du Udalak. Hortik uztailaren 23ko udalbatzarrerera eramandako proposamena. “Garai zailak datoz”, zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, bai ekonomiara, euskal enpresetara eta langileentzat. “Hurrengo urteetan enpresa garrantzitsuak datoz gure herrira”, gogorarazi zuen. Elkar eta Gureak lantegiak, Michelin ondora. Eta noski, enplegu berriak sortuko dira udalerrri honetako lurretan.

Helburu hori sustatzeko, enplegua sortzea bultzatzen duten proiektuak laguntzeko orain arte indarrean ez ziren zerga hobari batzuk aplikatzeko aukerari bidea eman nahi dio udal gobernu taldeak. Inguruko udalerrietan ere aurreikusitakoak dituztenak. Horregatik proposatu zuen udal gobernu taldeak, ordenantza fiskalen udal araudiko 11. artikulua egokitzea. Gehiengo osoz onartu zuen proposamena, EH Bilduren udal ordezkarien babesarekin. PSE abstenitu zen, EAJ aurka agertu zen.

11. artikuluko hobariak

■ %90 eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkuntantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.

■ %95 eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira autokontsumoari begira.

■ %15eko hobaria, etxebizitza babestuekin zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo

obrak direnean.

■ %90 eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Oharrak:

■ Ezinezkoa da aldi berean

hobari bat baino gehiago aplikatzea.

■ Obrak irisgarritasuna eta habitagarritasuna errazteko izan eta hobaria izango dute, ziurtagiri baten bidez egin beharreko lanok derri-gorrezkoak direla azaltzen badu.

Txirikorda proiektua bultzatzeko urrats berria

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko Xehetasun-Azterketaren aldaketa behin betikoz onartu zuen gehiengo osoz uztailaren 23ko udalbatzarrean. EHBilduren aldeko bozkekin eman zitzaion behin betiko onespina. EAJ eta PSE abstenitu ziren. Modu honetan betiko onartu zuten Udala eta “eremuko hitzarmen-batzarraren” arteko hitzarmen berria, eremu hartan kokatuko den Txirikorda, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren egitasmoa gauzatzea ahalbidetuko duena.

Udaltzaingoak “lehen agentea” izango du

Urte hasieran udaltzaingoaren antolaketa egokitu eta figura berri hau sortzea erabaki zuen Udalak. Uztailaren 23ko udalbatzarrean, plaza berri honi lekua egiteko udal Plantilla



Txirikorda proiektuak belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren egitasmoa gauzatzea du helburu.

UDALTZAINGOA

“Lehen agente berriaren eginkizun nagusia udaltzain buruari laguntzea izango da”

Organikoa eta udal lanpostuen zerrenda aldatzea erabaki zuten udal taldeek aho batez, Gasteizko Legebiltzarrak onarturiko Euskal Poliziari lo-

tutako legedi berriaren harira. Udaltzainburua, lehen agentea eta udaltzainak, udaltzaingoa hurrenkera horretan antolatzeari onartu zuen behin betiko udalbatzak urte hasieran. Udal gobernu taldetik berri eman zuten zuzenez, Udaltzaingoko lehen agente berriaren eginkizun nagusia udaltzain buruari laguntzea izango da. Edota bera ez dagoenean, hura ordezkatzeari.

2020ko zerga egutegia egokitu dute

Egutegi berri hau gehiengo osoz onartu zuten uztailaren 23ko udalbatzarrean, EHBilduren babesarekin. EAJ eta PSE abstenitu ziren. Egutegi fiskalak helburu argi bat du Udalaren esanetan; herritarrek argi izatea zer noiz ordaindu behar duten.

Egutegia

- Martxoak 2-ekainak 19: trakzio mekanizko ibilgailuen zerga.
- Ekainak 1-30: asteroko merkatuaren erabilpen tasa (urteko 1. hiru hilekoa).
- Ekainak 1-uztailak 30: ura, estolderia eta hondakinak (urteko 1. hiru hilekoa).
- Abuztuak 1-irailak 15: ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Irailak 1-urriak 16: ura, estolderia eta hondakinak (urteko 2. hiru hilekoa).
- Urriak 1-30: espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa).
- Urriak 1-abenduak 10: ekonomia jardueren gaineko zerga.

Diru-laguntza deialdien ebazpenak argitaratu ditu Udalak

Behin behineko ebazpenak Aisialdiko begirale edo zuzendari tituluak eskuratzeko

- Aurkezturiko eskaera kopurua: 9.
- Onarturiko diru-laguntza guztira: 1.542,50 euro aisialdiko begirale izateko ikastaroen laguntzetan, 170 euro aisialdiko zuzendari ikastaroa egingadakoan artean.

Euskara ikasleentzat

- Aurkezturiko eskaera kopurua: 45.
- Onarturiko diru-laguntza guztira: 20.990,86 euro.

Kultur egitasmoak garatzeko

- Aurkezturiko eskaera kopurua: 21 eragileek 62 ekin-tzetarako eskaerak aurkeztu

zizuten.

- Onarturiko diru-laguntza guztira: 64.209,38 euro.

Informazio gehiago:

Abuztuaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Behin betiko ebazpenak Gizarte zerbitzuetako egitasmoetarako

- Aurkezturiko eskaera kopurua: 14 elkarte aurkeztu ziren deialdira, urtebete lehenago baino hiru gehiago.
- Onarturiko diru-laguntza guztira: 11.999,91 euro.

Deserrotze eta bazterte sozialeko arriskuan diren pertsonen senideen arretarako

- Aurkezturiko eskaera kopurua: 1.
- Onarturiko diru-laguntza guztira: 4.259,52 euro.

Nekazaritza eta abeltzaintzako egitasmoetarako

- Aurkezturiko eskaera kopurua: 8.
- Onarturiko diru-laguntza guztira: 4.204,05 euro.

Ingurumeneko egitasmoetarako

- Aurkezturiko eskaera kopurua: 13.
- Onarturiko diru-laguntza guztira: 11 eskaera onartuak. 5.000 euro.

Kirol jarduerak burutzeko

- Kirol taldeen ohiko dirulaguntza zuzena

- Aurkezturiko eskaera kopurua: 10.
- Onarturiko diru-laguntza guztira: 50.000 euro.

Kirol egokituko ohiko jarduerak

- Aurkezturiko eskaera kopurua: 1.
- Onarturiko diru-laguntza guztira: 2.827,20 euro.

Kultur edo bestelako elkarten kirol jardueretarako

- Aurkezturiko eskaera kopurua: 2.
- Onarturiko diru-laguntza guztira: 792 euro.

Informazio gehiago:

Abuztuaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

“Etorkizuneko Pelaioenea mamiz eraikitzen hastera goaz”

Kanpoko egitura birgaitu eta itxura berri ostean, barnekoa eraikitzen hasteko ordua heldu zaio Kalezarko Pelaioeneari. Etorkizunean Emakumeen Etxea eta kalezartarrentzako udal ekipamenduaren egoitza kokatuko dira bertan. Bi egitasmo hauek definitzeko parte hartze prozesu bana iragarria zuen Usurbilgo Udalak. Martxoan hastekoak zituen, baina Covid19-a tarteko, udazken honetara atzeratu behar izan ditu. Irailaren 19an abiatuko dira. “Etorkizuneko Pelaioenea mamiz eraikitzen hastera goaz”, iragarri du Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak.

Legealdiko proiektu gakoetako bat garatzen hastera doaz, baina ez bakarrik, herritar eta eragileen laguntzaz. “Pelaioenea birgaitu eta biziberritzeko konpromiso irmoa dauka udal gobernu honek”, alkatearen esanetan. Horretarako bi prozesu parte hartzaile iragarri dituzte, “elkarren eskutik” joango direnak, eta hauen bidez “definitu nahi dugu Pelaioenearen etorkizuna”. Alka-



Emakumeen Etxea eta kalezartarrentzako udal ekipamenduaren egoitza kokatuko dira bertan.

ALKATEA

“Proiektu sozialak zehaztuko du hirigintza eskuhartzea”

tearen esanetan, “proiektu sozialak zehaztuko du aurrerago egin beharreko hirigintza eskuhartzea”.

Irailaren 19an, aurkezpena

Irailaren 19an aurkeztuko dituzte zehatz-mehatz aipatu eraikinean egoitza izango duten Emakumeen Etxearen eta kalezartarrentzako udal ekipamenduak definitzeko parte hartze prozesuen nondik no-

rakoak. “Gonbita luzatu nahi dugu; irailaren 19an plaza honetan ekitaldi ireki bat egingo dugu, gaur aurreratu dugun prozesu honen nondik norakoen berri emateko. Beraz, prozesu hauetan parte hartu nahi duen kide orori –bai Kalezarko auzotarrei, herriko mugimendu feministari, edota berdintasun alorrean lanean edota horretan ekarpena egin nahi dion emakumeei– benetan gonbita egiten diegu irailaren 19an egingo dugun ekitaldi horretan parte hartzera, eta nola ez, gerora egingo ditugun saio ezberdinetan parte hartzera”, alkatearen esanetan.

Kalezar bizigarriagoa helburu

Emakumeen Etxea eta kalezartarren udal ekipamendua definitzeko parte hartze prozesuak elkar loturik izango dira. “Bi gune bereizi izango ditugun arren, elkarren berri izan eta elkar elikatuko duten prozesuak izatea espero dugu”, adierazi du Naiara Arri Elhuyarreko ordezkariak.

Zereginotan esperientzia zabala duen Elhuyarrek dinamizatuko ditu prozesuok. Bi egitasmoek helburu bera dute; “Kalezar bizigarriagoa izatea”.

Emakumeen Etxeari dagokionean, “nahiko genuke Usurbilgo emakumeentzako erreferentziazko gune bat, espazio bat izatea. Emakumeak ahalduentzako espazio bat, elkar ezagutu, topatu, zaindu, hausnartu, konspiratu, maitatu, eraiki edota burujabetzeko gunea hain zuzen ere”. 2010ean Parekidetasun Saila sortu ostetik arlo honetan udalerrri honetan jorratu den “bide luze eta emankorra” nabarmendu du alkateak.

Aurreko Berdintasun Planak jada “Usurbilen Emakumeen Etxea edo antzeko egitasmo bat sortzeko beharra jasotzen zuen. Orain egitasmo hori gauzatera goaz”, iragarri du Solaberrietak. “Emakumeen neurrirra egindako proiektua osatu nahi dugu eta prozesuan zehar, honako gai hauen inguruan gogoetatu eta erabaki beharko dugu guztion artean”. Usurbilgo emakumeekin, mugimendu feministarekin, berdintasunaren alde lanean dihardutenak bidelagun izanda.

“Auzo guztien Usurbil eraiki nahi dugu”

“Auzotarrek auzoaren beharrei erantzuteko lokal bat behar dutela helarazi diote udal gobernuari eta Pelaioenek horretarako aukera ematen du gure ustez”, adierazi du Oxkar Santamaria zinegotziak.

Auzoen Usurbil eraikitzeke erronkaren bueltan kokatzen du egitasmoa udal gobernu taldeak. “Auzo guztien Usurbil eraiki nahi dugu. Auzo bizigarriak nahi ditugu, ez dugu Kaxkoa eta auzoen arteko desberdintasunak areagotzerik nahi. Auzoek ere nortasun, ezaugarri, behar, eta errealtate propioak dituzte eta horietan arreta jarri nahi dugu, auzoetako bizi kalitatea hobetzeko asmoz”.

Horretarako ezinbestekotzat jotzen dute, “auzo bakoitzaren beharrak identifikatu, bertako komunitatea kontuan hartu eta eurekin batera proposamenak landu, kohesio soziala, mugikortasun jasangarria eta zerbitzu publikoen eskuragarritasuna bermatzeko”.

Kalezar, aldaketa betean

Kalezar jarri du adibide moduan. “Kalezar aldaketa betean dago oraintxe. Bidegorria egin da. Ugartondo eta Matiaren obrak martxan daude. Eta orain, Pelaioenearen etorkizuna eraikitzen hastera goaz”.

Aurkezpena

■ Eguna: irailak 19, larunbata.

■ Ordua: 12:00.

■ Tokia: Pelaioenea atariko Felix Aizpurua plaza. Eurria bada, Sutegin.

■ Aurrez izena eman: parekidetasuna1@usurbil.eus 943 377 110

■ Dinamizatzailea: Elhuyar.


■ Antolatzailea: Udala.

Elizako erlojua, jatorrizko gunean

Auzolanean zaharberri-tu eta Sutegin ikusgai egon ostean, jatorrizko lekura itzuli zuten elizako erlojua kanpandorrera uztailearen 27an. Goizeko 8:00ak pasatxoan atera zuten aurreko asteetan Sutegin ikusgai izan zen Elizako erlojua, kanpandorrerantz.

Auzolanean zaharberrituriko erlojua plazara eraman eta handik garabi bidez igo zuten elizako balkoiraino. Lanotan parte hartu zuen udal brigadak, baita erlojua zaharberritzeko egitasmoa sustatu duen "ErlojERUAK" herriko lagun taldeko kideek ere.

Aurrerantzean bertan izango da. Etorkizunera begira, egun Elizako organoarekin batera egiten duten moduan, erlojuaren jatorrizko kokagune horretara bisita gidatuak antolatzeke asmoa dago.



Erlojua Sutegitik Elizako kanpandorrera garabiaren laguntzaz igo zuten unea.

Katekesian izena

emateko epea zabalik

Covid-19ak sortarazi duen egoera dela medio, katekesian izena emateko modua aldatu egin dute. "Guraso pilaketak ekiditeko, 2. mailatik aurrerako umeak dituzten familiek korreo elektronikoz jasoko dute izen-emate orria eta informazio guztia", aditzera eman duenez.

Umeak 1. mailan apuntatu

nahi dituzten familiek Parrokiaren korreo elektronikokoan (salbatoreparrokia@gmail.com) edo Parrokiako telefono zenbakian (943 361 239) utz dezakete telefonoa eta izena. "Gu jarriko gara harremanetan familiekin".

■ Izena emateko egunak: irailak 14-25.

■ Saioen hasiera eta hauek aurrera eramateko moduak erabakitzeke daude oraindik.

Autoestima eta autozaintza feministari buruzko tailerra

Coral Herrerak bideratuko du (erdaraz), emakumeei zuzendua egongo den doako tailerra, irailaren 25ean (15:00-20:00) eta 26an (9:00-14:00). Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailaren tailer bera bi egunetan egingo da; bi saioetarako taldea osatuko ez balitz, bakarra egingo litzateke. Hitzordurako lekua mugatua izango denez,

aurrez bideotatik eman behar da izena: 943 377 110 / parekidetasuna1@usurbil.eus

Sare afektiboaren garrantzia

"Tailer honetan autoestimua, norbere buruaren ezagutza eta ahalduntze pertsonal zein kolektiboa landuko ditugu. Gure burua gehiago eta hobeto maitatzen ikasiko dugu,

eta maitasunaz gozatu ahal izateko oinarriak zaintzen. Tresnak garatuko ditugu berdintasunezko bikote osasuntsuak sortzeko, tratu txar zein indarkeria orotik aske. Bakar-dadeaz, eta bizitzeko eta menpekotasun emozionalari aurre egiteko sare afektiboek duten garrantziaz ariko gara", aditzera eman dutenez.

"Aniztasuna eta elkarbizitza lantzen"

Irailaren 24rako iragarri du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak, 18:00etan Sutegiko auditorioan. "Gure herrian jatorri aniztasuna askotarikoa eta aberatsa da, eta hamarkada ezberdinetan herrialde askotako pertsonak etorri dira gurera, bizimodu hobea baten bila. Hori dela eta, gure herriko jatorri eta kultura aniztasuna ezberdina dugunon arteko gertutasuna eta elkarbizitza hobea lortze aldera ekintza ezberdinak diseinatu eta adostu nahi dira", berri eman du Udalak.

Aforo mugatua izango denez, bertaratu nahi dutenei aurrez izen ematea eskatzen die antolakuntzak: 943377110. parekidetasuna1@usurbil.eus

Helduen Heziketan matrikulatzeko garaia

Irailaren 17an hasiko dituzte eskolak. Hainbat jakintzen ezagutzan sakondu, DBHko titulua atera, hizkuntza ezberdinetan trebatu edota lagun arte giro ederrean aisialdiko ekintzez gozatzeko aukera eskaintzen du (bidaia eta irteera kulturalak, antzerkia, pilates, yoga, areto dantzak...). Migranteei zuzenduriko programa ere badute.

Informazio gehiagorako:

epalarte.eus
943 36 12 73
012734aa@hezikuntza.net
Agerialde Eskola

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
JATEXEA

· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Iraileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa



ARIES

Ikasturte hasiera ero samarra izango da zuretzat, ate berri asko irekiko zaizkizulako.

Hileko aholkua: Baina kontuz aire-korronteekin!



CANCER

Bihotz kontuek loa kenduko dizute hilabete honetan, eta gora behera handiak izango dituzu.


Hileko aholkua: Etxean desfibriladorea edukitzea komeni zaizu.



LIBRA

Eta berri bati ekiteko garai aproposa duzu hauxe. Balia-tu ezazu beti egin izan nahi duzun hori egiteko.

Hileko aholkua: Iratzargailurik gabe bizitzeko, adibidez.



CAPRICORNIUS

Maskarak traba asko egiten dizu, baina gauza onak ere baditu: bibotea ez duzu zertan depilatu eta barre faltua egiteko ere oso baliagarria da.

Hileko aholkua: Terrazatik haratago bizitza badago!



TAURUS

Kezkatuta zaude martxotik hona irabazi dituzun kilo horientatik eta garai aproposa duzu kirol pixka bat egiten hasteko.

Hileko aholkua: Bizikleta estatikoa erosteko une aproposa da.



LEO

Maskara eramaten bikaina zara: belarririk zintzilik, kokotsean, ukalondoan,...

Hileko aholkua: Noizean behin eraman behar den tokian!



SCORPIUS

Telelanera bueltatzeko beldur zara, ordainpeko lana egin ordez etxeko lanetan aritzen zarelako gehiago.

Hileko aholkua: Prestatu ezazu bulegoa ganbaran edo sotoan, bake pixka bat izateko.



AQUARIUS

Naturarekin bat egiteko izugarriko gogoia izango duzu hilabete honetan, baina kontuan izan Euskal Herriko tontorrek jendez gainezka daudela.

Hileko aholkua: Andatza hor izanda, zertarako behar duzu gehiago?



GEMINI

Festetarako gogoia duzu, baina gogoratu hamar pertsona baino gehiago elkartzeari ez dela komenigarria.


Hileko gomendioa: Ba al dituzu 10 lagun?



VIRGO

Koronabirusak ez du zure urtebetetze eguna zapuztuko, baina osasun neurriak hartu beharko dituzu.


Hileko aholkua: Tartako kandelak ez itzali maskarilla jantzita duzula!



SAGITARIUS

Maitasunak zure atea noiz joko zain zaude, baina gauzak ez dute horrela funtzionatzen. Mugitzeko garaia duzu.

Hileko aholkua: Zergatik ez duzu NOAA!n iragarki bat jartzen?



PISCIS

Triste xamar zaude lanera bueltatu zarelako eta hondartzara joateko denbora gutxiago duzulako.

Hileko aholkua: Oria ibaian hankak sartuta egotea ez da batere plan txarra.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Agur txalotu eta hunkigarria Joan Mari Torrealdairi

Euskara eta euskal kultur-gintzako erreferente eta eragilea, Joan Mari Torrealdai hil zen uztailaren 31n 77 urte zituela, 2015. urteaz geroztik minbiziarekin elkarbizi ostean. Etxean, senideez inguratua hil zen.

Asteburuan zehar Usurbilgo beilatokia, bertako nahiz Euskal Herriko erakunde, elkarte, eragile eta norbanako anitzen elkargunea izan zen. Lehen agur jendetsua eman zioten Torrealdairi. Bigarrena abuztuaren 3ko bere aldeko hileta elizkizunean. Agur txalotu eta hunkigarria, agur dantzatu eta abestua.

Amaieran, Jon Mayak dantzatzu agurtu eta oroitu zuen Torrealdai eta segidan, plazan Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak bi abesti eskaini zizkion; "Adio laguna" eta "Behin betiko". Txalo artean agurtu zuten Torreal-



Usurbilgo eliza erakunde, elkarte, eragile eta norbanako anitzen elkargunea izan zen.

dai, agur ezin hunkigarriagoan.

Eskertza

Ondoko eskertza mezua argitaratu zuen hurrengo egunean Torrealdai-Gorriti familiak:

“Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, Joan Mariren azken agurrean ondoan izan zareten guztioi, agurra goxoagoa eta ederragoa izan da zuei guztioi eskerrak. Eskerrik asko, adiski-

de, herritar, lankide, agintari, gizarte eragile, euskalgintzako eta kulturgintzako kide, euskaltzale oro. Eskerrik asko, bihotz altxagarri izan zarete. Ez adiorik!”.

GURE IZAERA
KULTURA
HIZKUNTZA LEHENA.
GEUREA LEHENA.

⇒ 1

Euskara ikasi, berme guztiekin

Buruntzaldeko udalek euskaltegiatako matrikulak ordaintzeko diru laguntzak ematen dituzte, euskara ikastea bultzatzeko. Eskaintza zabala da: zortzi euskaltegi daude. Buru-belarri aritu dira lanean guztiak, eta ikasturte berriari ekiteko prest daude.

Buruntzaldea eskualdeko euskaltegiak jo eta ke lanean aritu dira 2020-2021 ikasturteko eskaintza prestatzeko. COVID-19aren pandemiak erabat aldatu du zentro horien egunerokoa: aurrez aurre egiten ziren saioak eta tutoretzak, online; gelak egokitu beharra, osasun eta higie-neurriak... Beharrezko osasun-neurriak hartu eta eskaintza zabala prestatuta, euskaltegiak ikasleei erakutsi eta laguntzeko prest daude.

Gainera, beste abantaila bat ere edukiko dute ikasleek: matrikulazioak bultzatzea da eskualdeko udalen helburua, eta, horretarako, diru laguntza sortak eskaintzen dituzte; bateragarriak izan daitezke HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak ematen dituenarekin. Hortaz, eskualdeko herritarrei ia doan eta zenbait kasutan doan atera dakieke ikastaroa. Euskaraz ikasiko dute, berme guztiekin.

Aurreko ikasturteetan euren buruei jarritako helburua lortu dute Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuek: 1.000 ikasleen langa gairatzea. 2018-2019 kurtsoko datuen arabera, 1.043 herritar aritu ziren euskaraz ikasten eskualdeko euskaltegiaren batean. 2019-2020 ikasturteko matrikulazioen behin betiko kopuruak irail amaieran jakinago dituzte euskara zerbitzuek.

Zortzi euskaltegi daude guztira eskualdean. Bina Lasarte-Orian eta Hernanin, eta bana Urnietan, Hernanin, Andoainen eta Usurbilen.

Buruntzaldea osoko eskaintza aintzat hartuta, non aukeratu badago. Asteaz lau egunegehienez, goizetik iluntzera arteko ordutegietan, zortzi euskaltegi horietan bakoitzaren beharren arabera ikastaroak



2020-2021 ikasturtea prestatzen buru-belarri aritu dira eskualdeko euskaltegiak hilabeteotan. Erreportajea eta argazkia: Txintzarri.

ESKUALDEKO EUSKALTEGIAK

“Ikasleak gurekin euskara ikastera animatzen ditugu, ez dezatela beldurrik izan”

ematen dituzte. Hasteko, maila aldetik; A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 egiteko aukera dago. Nork bere kabuz autoikaskuntzan ikasteko abagunea ere badu. Tutoretzak, programazio pertsonalizatuak eta mintza-saioak eskaintzen ditu ikastaro mota horrek.

Mintzalagun, Gurasolagun, Zilegi Eskola... Eskolez gain, beste alderdi praktikoagoa ere eskaintzen dute euskaltegiak, ikasitako guztia praktikan jartzeko eta mintzamina lantzeko. Beste ekintza osagarri batzuk ere eskaintzen dituzte euskaltegiak, hala nola, irteerak, txangoak...

Udalen laguntza

Buruntzaldeko udalek ematen dituzte diru laguntzak euskara ikasteagatik –eskuin aldeko taulan kontsulta daitezke-. Bakoitzak bere baldintza propioak ditu, baina badira ezaugarri komun batzuk. Esaterako, gutxieneko asistentzia bete behar da, eta errolatuta

egon behar da herrian bertan. Langabetuei are laguntza handiagoak ematen dizkiete; %100 kasu batzuetan, 500 eta 600 eurora arteko mugapean.

Horrez gain, HABEk ere diru laguntzak ematen ditu. 2020. urtean, 3.150.000 eurokoak. Ondokoak dira baldintzak: batetik, 2019ko martxoaren 25etik 2020ko abuztuaren 31ra bitarteko epealdian euskaltegi edo euskararen zentro homologatu batean matrikulatuta egon izana; bestetik, 2019-2020 ikasturtean HABEren maila bat edo baliokideren bat egiaztatzea. 2020ko irailaren 4tik urriaren 9ra eska daitezke laguntza horiek.

Buru-belarri lanean

Eskualdeko euskaltegiak herritarrek animatzen dituzte 2020-2021 ikasturtean matrikulatze- ra.

Lasarte-Oriako Muntteri-AEK euskaltegiko langileek ere lan ikaragarria egin dute COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko egoerara moldatu eta hastear den ikasturtea prestatzeko. “Ez dugu ezer gertatu ez balitz bezala jokatu, beharrezko neurri guztiak hartu baititugu; herritarrei esan nahi diegu animatzeko euskara ikastera eta ez izateko matrikulatze beldurrik”.

Eskualdeko udalen diru-laguntzak

Andoain

■ Baldintzak: Andoainen errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.

■ Diru laguntza: Matrikularen %85 guztiei; familia ugari-ko edo errenta txikikoei, %100. Autoikaskuntza, %100. 664 eurora arteko muga.

Astigarraga

■ Baldintzak: Astigarragan errolatuta egotea. Asistentzia minimoa: %85.

■ Diru laguntza: Matrikularen %75 guztiei, 600 euroko mugarekin. Familia ugari-ko, errenta txikikoei, eta abar: matrikularen %100.

Hernani

■ Baldintzak: Hernanin errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.

■ Diru laguntza: Matrikularen %70. Langabeei, %90. 500 euroko muga. Finantzazio aukera desberdinak.

Lasarte-Oria

■ Baldintzak: Lasarte-Orian errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.

■ Diru laguntza: Ohiko diru laguntza, matrikularen %85.

Urnietan

■ Baldintzak: Urnietan errolatuta egotea. Asistentzia minimoa %80.

■ Diru laguntza: Matrikularen %85, 600 eurora arteko mugarekin. Langabeei, matrikularen %100.

Usurbil

■ Baldintzak: Usurbilen errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %80.

■ Diru laguntza: Guztiei, matrikularen %100. 600 eurora arteko mugarekin.

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**

Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoingo AEK
Plazaola, 2.
andoain@aek.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
607 62 52 33
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801 607592864
Zilegi eskola: 663043314
hernani@aek.eus

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
607610687
astigarraga@aek.eus

**Lasarte-Oriako Udala
Euskaltegia**

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko Udala
Euskaltegia**

Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.eus
943 331 896

URNIETA

Urnietako AEK
Errekalde kalea, 1
662 33 87 47
urnieta@aek.eus



Andoingo Udala
Golkio plaza, 1/g
20140 Andoain



Astigarragako Udala

Astigarragako Udala
Foru enparantza
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala

Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani



LASARTE-ORIA

Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria



Urnietako Udala
San Juan plaza, 1/g
20130 Urnieta



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil

Zubieta, Aginaga eta Atxegaldeko Kultur Biran



Kultur Bira giran ibili da uda honetan Zubietan, Aginagan eta Atxegalden.

Ikastaro ugari iragarri dira ikasturte hasierarako

Santuenea Elkartearen ikastaroak

- Astelehena: tai-chi (17:00), aeroyoga (19:10/20:15).
- Asteartea: hatha yoga (16:00-17:30 / 18:30-20:00 / 20:30-22:00).
- Asteazkena: restauratiboa (10:00), aeroyoga (17:40 / 18:55 / 20:15).
- Osteguna: reiki (17:00), hatha yoga (20:30-22:00).
- Ostirala: tai-chi (17:00).

Hasiera data eta izen-ematea:

- Aeroyoga: 615 71 59 91 / 670 02 77 31.
- Hatha yoga: 619 79 11 70 / 670 02 77 31.
- Oharra: egoera berriaren araber, aldaketak izan ditzake.

Einean guraso eskolaren ikastaroak

Irailaren 20ra arte eman ahalko da izena, Einean guraso elkarteak antolatutako ikastarootan:

Oinarrizko argazkilaritza digitala I

- Iraupena: astean behin 1,5 ordu, urria-abendua artean.
- Adina: 16 urtetik gorakoen-tzat.
- Irakaslea: Ibai Arrieta (635 70 14 73) / argazkikastaroa.usurbil@gmail.com

Oinarrizko argazkilaritza digitala II

- Iraupena: astean behin 1,5



Aeroyoga ikastaroa antolatu dute Santuenean.

EINEAN GURASO ELKARTEA

"Trailaren 20ra arte eman ahalko da izena, Einean guraso elkarteak antolatutako ikastaroetan"

- ordu, urria-abendua artean.
- Adina: 16 urtetik gorakoen-tzat.
- Irakaslea: Ibai Arrieta (635 70 14 73) / argazkikastaroa.usurbil@gmail.com
- Baldintza: lehenengo zatia egina izatea edo argazkilaritza digitalari buruzko ezagutza izatea.

Laboreak (bolilloak,

"punto cruz", gantxilloa...)

- Iraupena: astean behin 2 ordu, urria-ekaina artean.
- Irakaslea: Juani (609 41 38 83).

Yoga (luzaketak, arnasketak, lasaitzea...)

- Iraupena: astean behin 1,5 ordu, urria-ekaina artean.
- Irakasleak: Katia (636 71 15 14), Sebas (605 72 28 25).

Pintura (oleoa, akuarela, pastela...)

- Iraupena: astean behin 2 ordu, urria-ekaina artean.
- Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

Eskulanak

- Iraupena: astean behin 2 ordu, urria-ekaina artean.
- Irakaslea: Susana (609 41 38 83).
- Zehaztasunak: teknika ezberdinak ikasi gauza politak sortzeko edo berritzeko.

Sabel dantza/ hip hop

- Iraupena: astean behin 1,5 ordu, urria-ekaina artean.
- Irakaslea: Uarda (637 25 68 51).

Sormena eta moda diseinua

- Iraupena: astean behin 1,5 ordu, urria-ekaina artean.
- Irakaslea: Jone Iruretagoiena Eceiza (673 64 29 32).

Iraileko agenda ere, bertan behera

Covid-19a tarteko, asteotarako iragarriak zeuden hainbat hitzordu bertan behera utzi dituzte.

Baxurde Krosa

Hilabete honetan ospatzekoa zen 13. Baxurde Krosa bertan behera uztea erabaki du Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak. "Halere, 2021ean indar gehiagorekin itzultzeko

esperantza dugu. Beraz segi entrenatzen eta gure bazterretaz disfrutatzen", adierazi dute antolatzaileek.

Ikastolen aldeko jaialdia

Koronabirusa tarteko, udaberriatik asteotara atzeraturiko Herri Urrats, Araba Euskaraz eta Ibilaldia, eta hauekin batera urrian ospatzekoak ziren Kilmetroak eta Nafarroa Oinez ere

bertan behera uztea erabaki du Ikastolen Elkartek. Halere jai bakoitzari ziklo amaierako ekitaldi xume eta herritarra eman-godiote. Bestalde, bost jaien antolatzaileak Euskal Herriari ekitaldi handi bat eskaintzeko aukera aztertzen ari dira.

Zubietako hipodromoko jaialdia

Irailaren 18 eta 19rako iraga-

ria zegoen Donostia Festibala 2021eko irailaren 17ra eta 18ra atzeratu dute. Aurtengorako Donostiako txoko ezberdinetara hedatuko den Donostia Festibal Urban prestatu dute. Informazio gehiago, donostiafestibala.com atarian. Bestalde, La Polla Records taldearen irailaren 26ko agurreko kontzertua 2021eko irailaren 25era atzeratu dute.

Erosketa-bonu gehiago, saltoki gehiagotarako

Lehendik ere egoera zailen zen eta covid19-ak kolpatu duen herri merkataritza eta ostalaritza sustatzeko “Gertuago” egitasmoaren bigarren fasea abiatu dute sektoreko langileek, Hurbilagok eta Usurbilgo Udalak, lehenengoak harrera bikaina izan ostean. “Oso pozik gaude lehen aldian izan duen harrerarekin. Beste behin ere usurbildarrak eronkari heldu eta ezinhobeto erantzun dute”, zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, egitasmoaren segida aurkezteko irailaren 3an Mikel Laboa plazan egin zuten aurkezpenean.



Lehen fasean bezala, bigarrenean ere %20ko deskontuarekin eskuratu ahalko dira erosketa-bonoak, deskontu horren kostua Udalak bere gain hartzen segiko du.

Konfinamendu asteetan itxita izan edo galera handiak izan zituzten 31 establezimenduren parte hartzearekin abiatu zuten Gertuago egitasmoa. Erosketa-bonuen %90a saldu eta herri merkataritzak 50.000 euro pasatzeko laguntza jaso ostean, bigarren fasea ekimean parte hartu nahi zuten establezimendu guztiei zabalik izango da; 25 saltoki gehiagok bat egingo dute jada; tartean, elikagai dendek eta tabernek. Orain arte aukeran zeuden 20, 50 eta 100 euroko bonuez gain, orain 5 eurokoak ere eskuratu

GERTUAGO.EUS

“Orain arte aukeran zeuden 20, 50 eta 100 euroko bonuez gain, orain 5 eurokoak ere eskuratu ahalko dira”

ahalko dira, parte hartzaile berrien “lana eta kontrola errazteko”. Saltokietara inprimatuta eramatea eskatzen dute. Ostalariak laguntzeko lerro berri bat zabaldu du Gertuago egi-

tasmok. Aurrez ordea gogoan izan, itxialdiak eragindako kaltea arintzen laguntzeko Udalak diru-laguntza eman zion sektoreari, baita uda parte honetan terraza eremua handitzea baimendu ere.

Lehen fasean bezala, bigarrenean ere %20ko deskontuarekin eskuratu ahalko dira erosketa-bonoak, deskontu horren kostua Udalak bere gain hartzen segiko du, “merkatariek bonuen %100a jaso dezaten”. Bonu guztiak saldua

2.000 euroko laguntza jasoko du saltoki bakoitzak.

Adinekoengan jarria dute arreta gunea egitasmoaren sustatzaileek; “erosle fineak eta leialenak” izanik, “ez genuke kanpaina honetatik at geratzerik nahi”. Elkarlanaren eta elkar zaintzaren bidetik, erosketa-bonua eskuratzeko zailtasunak dituztenak laguntzera deitu dute. Horrez gain, laguntzarako langile bana izango da Potxoenean, baita KzGunean ere.

“Herri erronka baten aurrean gaude”

Gertuago egitasmoak kaltetutako sektore honi udaberriko itxialdiak “eragindako kolpea nolabait arindu asmoz jarri zuten martxan Usurbilgo Udalak” proiektu hau, Hurbilago Elkartearekin eta sektorearekin elkarlanean. Xede argi batekin; “herritarrek herrian eros dezaten bultzatzea, tokiko kontsumoa lehenetsia, erosketa ohitura berriak eragitea eta modu horretan, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea zaindu, babestu, sustatu eta

prestigiatzea”, alkateak iragan asteko aurkezpenean gogorazi zuenez.

Lehendik bezala, konfinamendu garaian eta gerora ere gugandik gertu izan eta gure bizimodua eta osasuna zaintzen aritu den herri merkataritza eta ostalaritza, “orain guri dagokigun haiek zaintzea eta gu gertu sentiaraztea”.

Aste luzez “herria hilik” eta “pertsianak itxita” izan ostean, “osasuna abiapuntu eta helmuga, herria berpiztea, bizitzea tokatzen zaigu orain”. Tartean,

hau bermatzen duen herri merkataritza eta ostalaritza sektorea. “Herri erronka baten aurrean gaude. Ez dut dudarik, elkar harturik, elkarlan eta lan-kidetzatik elkartasuna eta komunitatearen zaintza oinarri, aurrera egingo dugula”.

“Jendea bigarren fasearen zain zen”

Gertuago egitasmoaren bigarren fasearen aurkezpenean parte hartu zuten herriko merkataritza eta ostalari hainbatek. “Oso gustura gaude Udalaren

aldetik dugun laguntzarekin”, Lizardi liburu dendako langile Irati Artzeren esanetan. Ekimenak izandako harrera nabarmendu zuen. “Jendea bigarren fasearen zain zen, erosketa-bonua berriz ateratzea nahi zuela ikusi dugu”.

Bigarren fase honetan “Gertuago”-rekin bat egin duen Bordatxo tabernako langile Paulino Ibargoien esanetan, “jendearen erantzuna ona izango dela iruditzen zaigu”.

Gertuago, 2. fasean

■ 1. fasearen balantzea: erosketa bonuen %90 salduta, 50.350 euroko laguntza sektorearentzat (40.248 euroko herritarren ekarpena, 10.062 euroko udal ekarpena).

■ 2. fasearen berezitasunak:
-25 saltoki gehiagok parte hartuko dute (guztira 51ek).

-Parte hartzaile berrien artean; tabernak eta elikagai dendak.

-5 euroko bonuak ere eskuragarri (baita lehen faseko 20,50 eta 100 eurokoak). 5 euroko bonuok erabiltzeko inprimatuta eraman saltokietara.

-Herritar bakoitzak gehienez 1.000 euro xahutu ahalko ditu erosketa-bonuetan, gehienez 200 euroko deskontuarekin.

-Bono guztien salmentarekin 2.000 euroko ekarpena egingo zaio saltoki bakoitzari (1.600 euro herritarren ekarpena, 400 euro Udalarena).

■ Erosketa bonuen eskuratzea



Bordatxo tabernako Paulino Ibargoieneen esanetan, "jendearen erantzuna ona izango dela iruditzen zaigu".

eta informazio gehiago: gertuago.eus atarian.

■ Laguntza behar dutenentzat: KzGunera jo (astelehentik ostiralera, 9:00-13:00 edo

16:00-20:00) edo Potxoenera jo (astearte eta ostegunetan, 12:00-14:30). Hitzordua aurrez eskatu Potxoeneako 943 371 999 edo KzGuneko 943

023 684 telefono zenbakira deituta.

■ Sustatzaileak: herriko merkataria eta ostalariak, Hurbilgo Elkarte, Usurbilgo Udala.

ETORKIZUNEN PELAIOENA ERAIKITZEN

Auzo-ekipamendua / Emakumeen Etxea

NOIZ: IRAILAREN 19an

ORDUA: 12:00etan

NON: KALEZARKO PLAZAN
[euria egingo balu, Sutegin]

lizen-ematea: parekidetasuna1@usurbil.eus edo 943 37 71 10

Usurbil F.T. laguntzearen truke, esku bete sari opari

Usurbil F.T. laguntzeko errifa zozketa solidarioa bideratu zuten uda hasieran. Zozketa uztaila amaieran eta sari banaketa abuztuaren 31n egin zuten. Futbolari ezagunen kamisetak edota herriko musikarien sortze lanak oparitu dituzte zenbaki sarituen jabeek. Bost sarietatik hiru banatu dituzte, beste biak oraindik ez:

1. saria:

Asier Illarramendiren kamiseta, Zaparra taldearen diskoa, argazkia eta baloia.
Zenbaki saritua: 3.235.
Saritua: Julen Lamana.



Bost sarietatik hiru banatu dituzte, beste biak oraindik ez. Albistean dituzue banatzeke geratu diren zenbaki sarituak.



2. saria:

Mikel Oyarzabalen kamiseta, Odolaren Mintzoa taldearen diskoa, argazkia eta baloia.
Zenbaki saritua: 3.234.
Saritua: Mikel Lamana.

3. saria:

Zurutuzaren kamiseta, Iñorkiñak-en CDA, argazkia, baloia.
Zenbaki saritua: 2.104.
Saritua: Hodei Belaustegi.

4. saria:

Yuri Berchicheren kamiseta, Hotzikara taldearen diskoa, argazkia eta baloia.
Zenbaki saritua: 6.797.

Sari berezia:

Imanol Agirretxeren kamiseta, botak eta Izeberg taldearen diskoa.
Zenbaki saritua: 0.121.

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

2020-2021 Ikasturtea
Matrikula epea zabalik
(aldez aurretik hitzordua eskatu)

- **HEZKUNTZA OROKORRA** (Oinarrizko kultur formakuntza: Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, idazketa. Kalkuluan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)
- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHA**
- **IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIA ATZERRIRA**

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarate.eus

KAMDEN
hizkuntzak

English courses

Matrikulazio epea zabalik!

Klase presentzialak eta online
Informa zaitez!

kamden@kamdenhizkuntzak.com
kamdenusu@gmail.com
www.kamdenhizkuntzak.com

Zubiaurrenea 6 • Tlf 646 94 58 17

Bisitak etenda dituzte Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak

Covid-19a tarteko ia bisita guztiak etetea erabaki zuen abuztua amaieran Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak Hego Euskal Herriko nahiz besteak beste Madrilgo kartzeletan. Baita tartean, Aranjuezen ere. Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga bertan dituzte preso, indarrean den legediaren arabera, espetxealdiaren hiru laurdenak duela bi urtetik beteak izan eta kalean behar zuten arren kartzelan, Aranjuezeko espetxean dira. “Lokutorioan kristalarekin egiten ez diren gainerako bisitak kendu dituzte”. Bai “komunikazio intimoak, familiarrak eta bizikidetzakoak”, salatu zuen Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak abuztuaren 28an Mikel Laboa plazan deitu zuen hileroko azken ostiraletako elkarretaratzean.

Asteburu hartan ordea, covid19 kasu bat agertu Aranjuezen eta bisita guztiak eten zizkieten. Bai kanpokoak eta baita barne bisitak ere. Abuztuko azken asteburuan Olatz bisitatza zehaztenak “bidean ziren arratsaldean bisita egiteko eta Olatzek telefonoz abisua eman ondoren itzuli



Usurbilgo Mikel Laboa plazan eta Euskal Herriko beste hainbat plazetan, Olatz, Patxi eta Maddiren etxeratzea aldarrikatu dute, gainerako presoekin batera.

USURBILN NAHI DITUGU

“Ia zazpi hilabete daramate Xua eta gertuko senideak besarkatu gabe”

egin ziren”, berri eman diote NOAA!ri Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik. Espetxe berean baina modulu ezberdinetan bereiziak dauden Olatz eta Patxi elkar ikusteko bisitak ere eten zizkieten.

“Espetxeetan isolamendua areagotzen ari da”

Gogoan izan, Olatz uztailaren 18an jaio zen Maddi bigarren alabarekin da espetxean. Uztailaren 31ko elkarretaratzean ongi etorria eman zioten, ondoko talde argazkia aterata. “Ia zazpi hilabete daramate Xua eta gertuko senideak besarkatu gabe -Maddi jaio zen erietxean izan zuten tartetxoa kenduta Olatzen kasuan- eta orain hala segitu beharko dute, soilik lokutorioko bisitak baitituzte”.

Argi denez, lehendik ere

indarrean ziren urrutze neurriak, orain, egun bizi dugun osasun krisialdiaren ondorioz, “denok dakigu presoek eta beren senideek emozio-karga handia jasaten ari direla: segurtasun-eza, urduritasuna, beldurra eta ezintasuna... Izan ere, espetxeetan isolamendua areagotzen ari da”. Hartueman gero eta mugatuagoak dituzte presoek eta haien senide eta lagunek, konfinamenduak lehenik eta “deseskalatze” prozesuak gero eragindako eragozpenekin batera.

Usurbilgo Sortu: “Heriotza hau ekidin zitekeen”

Irailaren 4ean hilik agertu zen Igor Gonzalez Sola preso bilbotarra Martuteneko espetxeko bere ziegan. Biharamunean bere heriotza salatzen zuten Usurbilgo Sortuk Mikel Laboa plazan.

Presoaren hurbilekoei dolumin zinezkoenak helaraztearekin batera, jazotakoa “euskal preso politikoei ezartzen zaien espetxe politika kriminalaren ondorio da eta Espai-

niako Gobernuak du haren ardura zuzena”.

Ekidin zitekeen

Espetxealdiaren hiru laurdenak beteak zituen gainera Gonzalez Solak eta gaixo zen. “Heriotza hau ekidin zitekeen, Igorrek aske behar zuelako egon”. Herritarrak mobilizatza eta eragileak gogoeta kolektibora deitu ditu Sortuk. Euskal Herriak orain urratsak behar dituela exijitu zuten.



Espetxealdiaren hiru laurdenak beteak zituen Igor Gonzalez Solak.

Euskaraldiaren 2. ediziorako izen ematea zabalik entitateentzat

Irailaren 27ra arteko epea dute entitateek urte amaierarako iragarria dagoen 2. Euskaraldirako izen emateko. Gogoan izan, entitateak, erakundeak, herriko kultur nahiz kirol taldeak, gizarte eragileak, lantegiak... izan daitezke.

Eremuotan eragin nahi du hain zuzen urte amaierako Euskaraldiaren bigarren edizioak, Ariguneak identifikatu eta osatuta. Halaber, Belarriprest eta Ahobizi figurak ere berreskuratuko dira, ariketa norbanako gisa egiteko.

Izena eman edo argibide gehiago jasotzeko bideotatik hartuemanetan jarri Usurbilgo Batzordearekin: 943 371 999 / usurbil@euskaraldia.eus / usurbil.euskaraldia.eus



Irailaren 26an, 18:30ean Mikel Laboa plazan, "bertso-magia" Eriz magoarekin eta bertsolariekin.

Ikuskizuna, Mintzalagunen urtemugarekin bat

Euskara ahotan hartzea sustatzea helburu duen Mintzalagun egitasmoak 10 urte bete zituen urtarrilean Usurbilen. Etumeta AEK euskaltegiak, NOAUA! K.E.-k eta Udalak sus-

taturiko ekimenaren hamarkada omentzeko "bertso-magia" ikuskizuna antolatu dute Eriz magoarekin eta bertsolariekin, irailaren 26an 18:30ean Mikel Laboa plazan. Sarrerak eskuratzeke aurrez izena eman usurbilkultura.eus atarian.

Auzokonpostarako gune berria Munalurran



Interesa duten bizilagunek auzokonpostarako gune hau baliatzeko aukera dute.

"Gaur egun, hamalau familiek erabiltzen dute". Baina aipatu moduan, "inork bertan parte

hartzeko interesa balu!, informazio gehiago bideotatik jaso ahalko du:

- Atez ateko bulegoa
- atezate@usurbil.eus
- 900 776 776.

Liburutegia, ohiko ordutegian baina neurri bereziki

Liburutegi barrura sartzerakoan musukoa jantzita, eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitu beharko ditugu eta pertsonen arteko 2 metroko distantzia errespetatu beharko dugu. 12 urtetik beherakoak heldu baten laguntzaz sartu beharko dira Sutegi udal liburutegira. 2 pertsonako aforo mugatua izango du, bai harrera zerbitzuan, baita mailegu eta itzulketa zerbitzuetan ere. Neurri bera aplikatuko dute "apaletara joateko" garaian ere.

Kontsultak egiteko edota lanerako baliatu behar dutenentzako 10 lagunentzako lekua egongo da. Ordenagai-luak baliatzeko erabilera mugatua aldiz; 3 lagunentzat.

Ordutegia:

10:00-13:00 / 16:00-19:30

Informazio gehiagorako:

- 943 360 692
- 688 625 477
- biblioteka@usurbil.eus

Garraio zerbitzuak, "neguko ordutegian"

Lurraldebusek nahiz Euskotrenek "neguko" ordutegia indarrean dute jada. Informazio gehiagorako:

- lurraldebus.eus
- euskotren.eus

Muxurbil antzerki taldea, ikasturte berrian

Klaseak iragarri dituzte, haur, nerabe nahiz helduentzat. "Oraingo larunbat goizetan". Osasun neurriak aintzakotzat hartuta eta talde txikiagoak osatuta bideratuko dituzte ikastaroak. Informazio gehiagorako:

ixabel.agirresarobe@gmail.com
675 712 383

Kiroldegia, ezohiko denboraldi berrian

Ohiko ordutegira itzulia da berriz Oiardo Kiroldegia hilabete hasieratik. Bi aldaketa nagusirekin ordea. Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, konfinamendu ostean ekainean zabaldu zutenetik igerilari bakarra ibili zitekeen igerileku handiko kale bakoitzean, “hemendik aurrera bi izango dira, eskari kopuru altua dela eta”. Hainbat ikastaro ere abiaraziko dituzte Kiroldegian, baina erabiltzaile gutxiagorekin talde bakoitzean, “areto bakoitzaren edukieraren arabera, euren artean distantzia mantendu ahal izateko”.

Ordutegia

- Lanegunak: 07:00-12:30 / 14:30-22:00 [igerilekua: 12:15 eta 21:00].
- Larunbatak: 09:00-21:30 [igerilekua: 21:00].
- Igandeak eta jaiegunak:



Ekainetik igerilari bakarra ibili zitekeen igerileku handiko kale bakoitzean, “hemendik aurrera bi izango dira”.

IKASTURTE BERRIA

“Ohiko ordutegira itzulia da Oiardo Kiroldegia”

09:00-13:30 [igerilekua: 12:45].

Ikastaroetako izen ematea

Irailaren 7tik 13ra: ikastaroetan

aurretikako izen-ematea, Internet bidez.

Irailaren 14tik 20ra: ate irekiak. Irailaren 14tik 30era: izena emateko epea.

Urriaren 1a: ikastaroen hasiera.

Informazio gehiagorako:

Kiroldegian bertan. 943 37 24 98.

2020-2021eko ikastaroak Oiardo kiroldegian

Eskaientza

- Helduentzat: Spinning, pilates, pilates plus, 3. adina, mantendu gimnasia, zumba, jumpfrit, hipopresiboak, yoga-mindfulness, yoga edota ur jarduerak (entrenamendu trinkoa, matropilates, aquagym, igeriketa hobekuntza, igeriketa hastapena).
- Haurrentzat: Zumba gazte, spinning (14-18 urte) edota igeriketa taldeak.

Izen emateko epeak

Online (xehetasunak usurbil.eus web orrialdean).

Helduak

- Irailak 8-13: iazko ikasturtean izena emanda ibili zirenek izena emateko epea.
- Irailak 14: izena emandako pertsona kopurua taldearen edukiera baino handiagoa bada,

zozketa egingo da. Egunean bertan abisatuko zaie erabiltzaileei.

- Irailaren 15etik aurrera: plazaren bat libre geldituko balitz, izena emateko aukera izango lukete.

- Helduek izena emateko formularioa, usurbil.eus web orrian.

Haurrak

- Irailak 15-20: iazko ikasturtean izena emanda ibili zirenek izena emateko epea.

- Irailak 21: izena emandako pertsona kopurua taldeen edukiera baino handiagoa bada, zozketa egingo da. Egunean bertan abisatuko zaie erabiltzaileei. Adinaren arabera izango dira taldeak.

- Irailaren 22tik aurrera: plazaren bat libre geldituko balitz, haurrek igeriketa ikastaroetan izena emateko aukera.

- Haurrek izena emateko formularioa, usurbil.eus web orrian.

Aldagelen erabilera

- Ikastaroetako parte-hartzaileek aldagelak erabili ahal izango dituzte, ikastaroa hasi baino 15 minutu lehenago sartuta; ikastaroaren ondoren, beste 15 minutu izango dituzte aldatzeko.

- Hala ere, beharrezkoa ez bada aldagelak ez erabiltzea gomendatzen da.

Ordainketak

- Ordainketa guztiak bankutik helbideratuta egitea lehenetsiko da.

- Ikastaroaren zati bat Covid-19agatik bertan behera geldituko balitz, ikastaroa bukatzean egingo litzateke dagokion proportzioaren zatia.

Usurbilgo

Judo Klubean

izen emateko garaia

2020-21 kirol urtera begira da baita Usurbil Judo Elkarteak. Denboraldi berrirako izen emateko epea zabaldu dute. Astelehen eta asteazkenetan 17:30-18:30 artean Oiardo Kiroldegian bideratu ahalko da matrikulazioa. “Oiardo Kiroldegiko aldapako sarreran egongo gara”, ohartarazi dute judo bilgunetik. Izen ematea bideratzeaz gain, duten eskaintzaren berri jasotzeko aukera izango da.

“Urriaren 5ean hasiko da ikasturtea”

Kirol urte berria noiz hasi asmo duten ere zehaztu du Usurbil Judo Elkarteak. “Eskola adineko judoko ikastaroa urriaren 5ean hasi aurreikusten da”, ohartarazi dute judo elkarteak kideek.

Erraustegia geratzeko giza-katea Kontxan

Urtero moduan, Zubietako erraustegia geratzeko, hondakinen errausketaren aurka egingo den giza-katea iragarri dute Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinadorak, eragile ekologista, sozial, sindikatu eta alderdi politiko hainbatekin batera. Igande honetan 11:00etan Donostiako udaletxe atarian, Alderdi Ederren, “Errausketarik ez! Donostia zaborretan itota” adarripean.

Hondarribia, aurretik

Lehen jardunaldian Alex Uda-be eta Hondarribia nagusitu ziren. Haiek dira sailkapen buruan. Laugarren postuan dira Orio eta Josu Ostolaza aginagarra. Emakumezkoetan aurretik ez da herri ordezkariarik.

Hezkuntza sektorea, grebaren atarian

Covid-19ak baldintzaturiko ezohiko ikasturtea abiatu da ikastetxeetan. Bai Zubietako eta Aginagako eskoletan, baita Udarregi Ikastolan ere. Baina Hezkuntza Sailak agindu moduan era mailakatu. Haur Eskola, HH, LH eta DBH-ko 1. eta 2. mailetako ikasleak aste hasieran itzuli ziren, ezohiko prebentzio neurrien artean. Datorren astelehenean, gainerako zikloen txanda; DBH 3 eta 4 mailak.

Lanbide Heziketakoak ere irailaren 14-23 artean itzuliko dira ikasgeletara; goi-mailako zikloetako lehen eta bigarren ikasturtekoak, hilaren 16an eta 14an hurrenez hurren. Astebete beranduago erdi-mailako zikloetako lehen eta bigarren ikasturtekoak, irailaren 23an eta 21ean hurrenez hurren.

Bilera erronda

Ezohikoa izango den ikasturtearen nondik norakoak azaldu zizkieten Udarregi Ikastolak familiei irailaren 1ean eraikin berriko jangelan. Klase presentzialen aldeko apustua egingo dutela, beharrezko prebentzio neurriak hartuta noski. Ikastolako Zuzendaritza Taldeak eta Artezkaritza Kontseiluak udarregi.eus atariaren bidez datozen hilabeteotako jarduna presentzialki bideratzeko osaturiko antolaketa lanaren xehetasun nagusiak plazaratu dituzte egunotan.



Haur Eskola, HH, LH eta DBH-ko 1. eta 2. mailetako ikasleak aste hasieran itzuli ziren, ezohiko prebentzio neurrien artean. Datorren astelehenean, gainerako zikloen txanda; DBH 3 eta 4 mailak.

IRAILAREN 15EAN, GREBA

Mobilizazioak eta greba eguna deitu dute irailaren 15erako ELA, LAB, STEILAS, CCOO eta UGT sindikatuek

“Osasuna eta segurtasuna babesteko erabakiak hartu nahi izan ditugu”

Talde egonkorren aldeko apustua egin dute ikastolan. Prebentzio eta higiegi irizpideak finkatu dituzte. Sarrera-irteera mailakatuak iragarri dituzte. HH eta LH-ko ikasleek goiz eta arratsaldean izango dituzte klaseak. DBH-koak ordutegi jarraian ariko dira. Jangela eta goizeko zaintza zerbitzuak ere eskaini asmo dituzte lehen egunetik aurrera, zerbitzua behar-beharrezkoa duten familientzat.

“Zalantza betetako eta zurrerik aldakorra izango den egoera honen aurrean, pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko dituzten erabakiak hartu nahi izan ditugu”, adierazi dute Ikastolatik.

Udalak baliabideak eskaini ditu

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) Udalen Elkartea jo zuten abuztu amaieran laguntza eske. Datozen hilabeteotan sor daitezkeen hezkuntza beharrei aurre egiteko, udalerriei zituzten espazio publikoak zerrendatzea galdegin zitzaizkien. Usurbilgo Udala jada lanketa betean zen. “Horretan gabiltza azken asteotan, gure herriko ikastetxeekin hartu-emanetan eta udal baliabideak eskaintzen, eskola presentziala eta hezkuntza komunitatearen osasuna le-

henesteko”, iragan hilabetearen Usurbilgo alkateak berri eman zuenez.

Itzulera seguru eta adostuaren alde

Aurrez aurreko klaseetara itzuli bai, baina modu seguru eta adostuan egitea eskatzeko mobilizazioak eta greba eguna deitu dute irailaren 15erako hezkuntzan, ELA, LAB, STEILAS, CCOO eta UGT sindikatuek. Deialdiokin bat egin dutenen artean dira Udarregi Ikastolako langileak. “Eskoletara aurrez aurre itzultzeko Hezkuntza Sailaren kudeaketak onartezina eta arduragabea izaten jarraitzen du; aldebarrekoa eta adostu gabekoa, berantiarra eta langile, ikasle zein familiengan etengabeko ziurgabetasun egoera sortzen ari dena”, diote sindikatuek.

Sindikatuekin interlokuzioa eta negoziazioa aktibatzea eskatzen dute, lanpostu guztietako ordezkapenak betetzea, ikasleen ratioak jaiste, jantoki zerbitzua ikasle guztientzat bermatzea, eskola garraio zerbitzu segurua, curriculumaren egokitzapena, lan taldeak indartzea... “EAEko Hezkuntza Sailari ziurgabetasun honekin bukatu eta itzulera segurua, aurrez aurrekoa eta adostua bermatzeko neurri eta irizpide komunak jar ditzaten exijitzen diogu”, adierazi dute sindikatuek.

Ekintzaileei zuzenduriko bi laguntza lerro

Hutsik diren lokal komertzialak biziberritzeko diru-laguntza deialdia

■ Xedea: lokal komertzial hutsu batean jarduera berri bat martxan jarri nahi duenarentzako alokairu gastuei aurre egiteko laguntza.

■ Laguntza: gehienez bi urterako. Lehen urtean gastuaren

%40a (gehienez 300 euro), bigarren urtean %30a (gehienez 200 euro).

■ Oharra: lehentasuna izango dute egun ez dauden jarduerak edota ixtear izan edo itxi berriak izan diren jardueren segida diren egitasmoek.

■ Informazio gehiago: zabalik.usurbil.eus

Hasiz Hazi beka deialdia

■ Xedea: Kabiene elkarlan-gunean urtebeteko egonaldia diruz laguntzea.

■ Laguntza: bekaren gehienezko zenbatekoa urtebeteko 1.089 eurokoa. 12 hilabete-tako alokairu gastua (75 euro hileko), eta honi dagokion %21eko BEZ-a (15,75 euro

hileko) izango da”.

■ Nori zuzendua: 2020. urtean enpresa proiektu berri bat duen ekintzaileari zuzendua.

Informazio gehiagorako: enplegu@usurbil.eus 943 371 951

Bi kasuetan, eskabideak aurkezteko epea: Irailak 30.



Enrike Huizi

Pako

ESKERRIK ASKO PAKO
Usurbildar asko zure lanari
esker aritu gara pilotan.

ESKERRIK ASKO
Beti pentsatu izan dugu, ba-
loratu izan dugu, presente
izan dugu, zuregatik izan
garela pilotari, sentitu izan
garela pilotari.

ESKERRIK ASKO
Askotan entzun izan dugu
HERRIGINTZA hitza. Zuk
egin duzuna Usurbilen hori
da; HERRIGINTZA.
Nahi zenuelako
Zure borondatez
Inork eskatu gabe
Zuk bueltan EZER eskatu
gabe.

Urte luzez zure ordu, lan,
neke eta gogo horiei esker
ASKO eman diozu herriari
eta herritarrei.

ESKERRIK ASKO
Haur eta gazteei pilotan ibil-
tzeiko aukera, astearte eta os-
tegun arratsaldero.

Beste garai batzuk baziren
ere, neska bat baino gehiago
ere ibiliak dira pilotan zure-
kin.

Herrian pilota partidak anto-
latu.



Pako Alkortarekin pilotan ibilitako taldeak idatzi bat osatu zuen bere omenez. Enrike Huizik abuztuaren 10eko hileta elizkizunean irakurri zuena, hain zuzen. Orrialde honetan duzue irakurgai.

**“Askotan entzun izan
dugu HERRIGINTZA hitza.
Zuk egin duzuna
Usurbilen hori da;
HERRIGINTZA.
Nahi zenuelako
Zure borondatez
Inork eskatu gabe
Zuk bueltan ezer
eskatu gabe”**

Kirol honen zaleei pilotaz
gozatzeko aukera eman.

Federazioan, udaletxean...
Harreman guztiak eraman.

ESKERRIK ASKO
Jakitun gara, zuk beti OZEN
esaten zenuelako, LAGUN-
TZA izaten zenuela. “Eske-
rrak hauek laguntzen didaten”
esaten zenuen. Baloratzen
zenuen. “Hau dena ez dao
bakarrrik iteik” esaten zenuen.

ESKERRIK ASKO ZUEI ERE
- Zenbat kantu saio eta txiste
kontaketa Dyane 6 urdin eta
Opel Corsa txuri barruan!!

Anekdotak pila bat ditugu zu-
rekin, ahazten ez zaizkigunak.

ESKERRIK ASKO
Zenbat usurbildarrek entzun
dute hau:
“ Gerriya sartu”
edo
“ Ezkerra zertako dakak, pixa
iteko?”.

Zurekin pilotan ibili ga-
ren guztiok eternidaderaino
eramango dugu zure oroim-
ena.

Guztion partetik, eskerrik
asko, Pako.

Bejondeizula!!!

Uraltz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraltz@uraltz.com USURBIL

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Munalurra 16, 5ªA pisu bat salgai. 3 logela, 70 metro². Ilogailua egitea onartuta dago eta berehala egingo da. 130.000 euro. [Interesatuak deitu: 617972350](mailto:Interesatuak.deitu:617972350).

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurrean. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943916182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688779465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Alokairuan

Usurbilgo erdigunean gela bat alokatzen da, giza-seme langile

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: [943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus](mailto:943360321/erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

edo.jubilatua.687348223.

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 66115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. 633141060

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696014585

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. [620708265 / 686143786](mailto:620708265/686143786).

MOTORRA

Salmenta,
garajeak

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Erreka Txiki Kalean. Marradun garaje bat, aparkaleku konpartitua. Moto batentzat lekua alokairuan. 653716914.

Kale Nagusian. Garaje itxia salgai. 16m². Goiko solairuan. Apalategiekin. Hezetasunik gabe. Komunitateko garbitegia. 653716914

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626735354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. [943429682 / 637293471](mailto:943429682/637293471)

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekaxiki kalean. Tel. 616235366.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Udan LHteko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Orduategia zehazteko daukagu.

658706443

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV.info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629951931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680483164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699760873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. [664192760 / 722483994](mailto:664192760/722483994).

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126



Zorionak Areia eta June!

Areiak irailaren 9an eta Junek irailaren 11n izango duzue urbetetzea. Zorionak eta muxu handiak etxekoan partez. Ederki ospatuko dugu!



Zorionak Manex!!

Abuztuaren 25ean egin zenituen 3 urte! Jarraitu beti bezain alai. Muxu bat familia guztiaren partez.



Zorionak June!!

Muxu handi bat etxekoan partez.

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitaria behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo

gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo

persona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan.

632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

BESTELAKOAK

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskalategia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

Txirinda bat opari. 9-12 urtekoentzako. 675 712 383. Helbide honetan duzue ikusgai: <https://ibb.co/MZZxQmf>

Isabelita Mandarinara Japoniarra (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo daغو 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalentza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Heriotzak

Ander Etxebarria Ugartemendia
Uztailaren 28an hil zen
22 urterekin



Heriotzak

Pako Alkorta Lizargarate
Abuztuaren 8an hil zen
75 urterekin



Heriotzak

Juan Bautista Padrones Gonzalez
Abuztuaren 14an hil zen
84 urterekin



Heriotzak

Maria Teresa Azpiroz Alsua
Abuztuaren 15ean hil zen
75 urterekin



Heriotzak

Constantino Aranguren Olaizola
Abuztuaren 22an hil zen
91 urterekin



Heriotzak

Joan Mari Torreldai Nabea
Uztailaren 31n hil zen
77 urterekin



Heriotzak

Maria Luisa Beristain Izaguirre
Abuztuaren 8an hil zen
71 urterekin



Heriotzak

Javier Orbegozo Lizarazu
Abuztuaren 15ean hil zen
90 urterekin



Heriotzak

Rosario Manterola Ostolaza
Abuztuaren 21ean hil zen
96 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 10 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 11 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 12 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 13 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 14 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 16 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Irailak 10 - Irailak 20

Osteguna 17 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 18 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 20 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda iraila

11 ostirala

12 larunbata

13 igandea

■ **Harria Hitz bisita gidatua.** 11:00etan Usurbilgo frontoitik.

■ **Errausketaren aurkako giza-katea** Goizeko 11:00etan Donostiako Alderdi Ederren. Deitzaileak: eragile anitz.

Harria Hitz bisita gidatuan parte hartzeko aukera berriak

Usurbilgo kultur altxorrez gozatzeko aukera itzuli da udalerrri honetara. Lehen bisitariak hartu zituen uztailearen 25ean aurten lehen aldiz antolatu zen Harria Hitz ekimenaren bueltan, bizi dugun osasun krisialdira egokituta, 15 laguntzako taldeekin. Usurbilgo kultur altxorrek ezagutzea ahalbidetzen duten bisita gidatuak gertatzeko datoz. “Uda eta udazkenari begira sorpresa eta ekitaldi berriak prestatu ditugu zuentzat”, iragarri dute sustatzaileek. Asteotan hurrengo saioak:

Irailak 12/26

- 11:00 Usurbilgo frontoian elkartu.
- 11:05 Harria Hitz bisita gidatua herri-gunean: Dema Plaza, Udarregiren omeneko eskultura, Zumetaren murala,



Frontoitik abiatuko da bisita gidatua, larunbat honetan eguerdiko 11:00etan.

Mikel Laboa plaza, Tapiaren murala, Askatasuna plaza, Sagardoaren monumentua.

- Prezioa: 5 euro.
- Izen ematea: aldeaz aurretik 688 81 80 17 telefono zenbakian edo info@kultour.pro helbidean.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Argazki lehiaketa Santuenean

Gaitzat “Auzo koloretsua” hautatu duen argazki txapelketa antolatu du Santuenea Elkarteak, adin guztietako herritarrentzat. 3 maila bereizi dituzte: haurrak (4-7 urte), gaztetxoak (8-16 urte); eta helduak. Lehiaketarako izena irailak


15-30 artean bideratu behar da. Argazkiak aurkezteko azken eguna, irailaren 30a.

Informazio gehiago, elkarteko egotzian edo 670 02 77 31 telefonoan jaso ahalko da.

Datozenak

“Tomas Zumalakarregi eta bere garaia” liburuaren aurkezpena

Irailaren 17an 19:00etan Potxoenean. Nafartarrak Kultur Taldeak antolatutako ekitaldirako sarrera doakoa izango da, baina aforo mugatua izango du. Iazko



azaroan aipatu bilgunetik, Tomas Zumalakarregiren biografia hobekiago ezagutzeko aukera eskaini zuten Sutegin antolatu zituzten jardunaldietan. “Tomas Zumalakarregi, gure herrialdearen figura historiko nagusietako bat da, errelato ofizialaren hegemoniarri ihes egitea lortu duen gutxienetako bat hain zuzen ere”. Zumalakarregi bizi izan zen garaiaz, testuinguruaz aritu ziren, garai hartako testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoa aztertzea izan zuten helburu.

Irailaren 17an, Potxoenean

Jardunaldiek izan zuten harrera ona ikusita, saio haietako hitzaldien edukiarekin liburu osatu eta argitaratu du Nafartarrak Taldeak. Irailaren 17an aurkeztuko dute Potxoenean.

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil


www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Usurbilgo merkatariak gertu gaude!

gertu@go

www.gertuago.eus



Irati Ibargoien fisioterapia



Oinutsik podologoa



Ekaitz Hertz Klinika



Antton Hertz Klinika



Usurbil Optika



Urtinea



Aldamu konponketak



Itzira Eraikuntzak



Ixabel Esnaola Estetika



Bazar txinatarra




Errazkin bizikletak



Aizpurua Okindegia

Betiko sua, gaurko sukaldaritza



*Eguneko Menua
Karta*

Menu Bereziak

*Egunero irekita
goizeko 9:00etatik*

*Puntapax 8
943.36 .91. 39*



www.artzabaljatetxea.com